



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko otsailaren 21a

28. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 10-23/POR-00071. Galdera, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak Volkswagenein inbertsioa dela-eta eginiko zuzemenei buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (3. or.).
- 10-23/POR-00072. Galdera, legegintzaldia bukatu baino lehen Estatuarekin transferentziak negoziatzeari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (4. or.).
- 10-23/POR-00073. Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer bide-orri daukan kalitatezko zerbitzu publikoak bermatu eta erreibindikazioei aurre egiteko. Domingo González Martínez jaunak egin du (4. or.).
- 10-23/POR-00074. Galdera, legegintzaldi honetan lanbide arteko gutxieneko soldata 1080 eurora bitarte igo izanaren balorazioari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (5. or.).
- 10-23/POR-00075. Galdera, Klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legean aurreikusitako epeen betetze-maila egokitzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (6. or.).
- 10-23/POR-00076. Galdera, gazte-boluntariorlan lortutako gaitasunak aitortzeari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (6. or.).
- 10-23/POR-00077. Galdera, Nafarroan ibilgailu elektrikoen fabrikazioak duen etorkizunari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (7. or.).
- 10-23/POR-00078. Galdera, Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko 2023-2027 urte anitzeko planari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (7. or.).
- 10-23/POR-00079. Galdera, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren eta Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren 2023rako aurrekontuak murrizteari buruzkoa. Angel Ansa Echegaray jaunak egin du (8. or.).
- 10-23/POR-00080. Galdera, Osasungintzaren Barometroaren arabera herritarrek Nafarroako osasungintzari dagokionez duten iritziari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (8. or.).
- 10-23/POR-00081. Galdera, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen erregelamendua onetsi zuen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuaren 16. artikulua aldatzeari buruzkoa. Jabi Arakama Urtiaga jaunak egin du (9. or.).

- 10-23/POR-00082. Galdera, 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntza-eskaintza hobetzearen Hezkuntza Departamentuak egindakoari buruzkoa. Jorge Aguirre Oviedo jaunak egin du (10. or.).
- 10-23/POR-00083. Galdera, euren errenta dela-eta familiak pairatzen ari diren erosahaltenaren galera moteltzearen Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa. María Jesús Valdemoros Erro andreak egin du (10. or.).
- 10-23/POR-00084. Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko dituen montepioen pensioak direla-eta. María Inmaculada Jurío Macaya andreak egin du (11. or.).
- 10-23/POR-00085. Galdera, zinemagintzarentzako zerga-pizgarriak handitze aldera Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (11. or.).
- 10-23/POR-00086. Galdera, kultur intereseko ondasunetara eta ondasun higiezin inbentariatuetara doako bisitak egiteari buruzkoa. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak egin du (12. or.).
- 10-23/POR-00087. Galdera, Volkswagenen hornitzaileen parkea mantentzeko bermeei eta Landabengo plantan enplegua mantentzeko trantsizio-plan negoziatuari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (13. or.).
- 10-23/POR-00088. Galdera, Etxebizitza babestuko sustapen geldiarazi edo atzeratuei buruzkoa. José Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (13. or.).
- 10-23/POR-00089. Galdera, Foruzaingoan jardunaldi, ordutegi eta ordainsarien erregelamenduaren zirriborroak dakarren langile-gastuen igoera finantzatzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (14. or.).
- 10-23/POR-00090. Galdera, Nafarroako Gobernuak enplegatu publikoen erreibindikazioei emandako erantzunari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (14. or.).
- 10-23/POR-00091. Galdera, Ministroen Kontseiluak onetsi zuen Familiei buruzko Legearen aurreproiektuan jasotako hazkuntza-prestazioa Nafarroan egokitzeari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (15. or.).
- 10-23/POR-00092. Galdera, gure erkidegoan enpresa-proiektu berriak garatzeko aurreikusten diren inbertsioei buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (16. or.).
- 10-23/POR-00093. Galdera, EH Bilduk Nafarroako Gobernuari emandako babesari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (16. or.).

F saila:
GALDERAK

10-23/POR-00071. Galdera, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak Volkswagenen inbertsioa dela-eta eginiko zuzemenei buruzkoa.*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak Volkswagenen inbertsioa dela-eta eginiko zuzemenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak 2023ko otsailaren 23an Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Oraintsu jakin dugu Volkswagenek 1.024 milioi euroko inbertsioa eginen duela –gure erkidegoan industrian inoiz egin den inbertsiorik handiena– Landabengo plantan.

Ibilgailu elektrikoaren eredurako zubia ekarriko du horrek, gure erkidegoko enplegu zuzena nahiz zeharkakoa bermatu bidenabar, planta horren inguruan hornitzaileen sare handi bat ehundu baita.

Jakin badakigu enpresa batek ez duela munta horretako erabaki bat egun batetik bestera hartzen eta Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak lan handia egin behar izan duela lehenago erabaki hori, azkenik, gauzatu dadin.

Hori dela-eta, galdera hau egiten diogu Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariari, ahoz erantzun dezan:

Zuzentzen duzun departamentuak zer zuzemen egin ditu honaino, enpresak erabakia hartzeraino, iristeko?

Iruñean, 2023ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

10-23/POR-00072. Galdera, legegintzaldia bukatu baino lehen Estatuarekin transferentziak negoziatzeari buruzkoa.

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, legegintzaldia bukatu baino lehen Estatuarekin transferentziak negoziatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagastik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakari María Chivite Navascués andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak sinatutako aurrekontu-akor-

dioak egiaztapen bat jaso zuen (akordio horri esker, Nafarroako 2023rako Aurrekontu Orokorrak onetsi ziren): akordioa sinatu zen unean bete gabe zeuden zenbait konpromiso politiko. Hortaz, adostu zen konpromiso horiek 2022a bukatu aitzin betetzea, egutegian 2023ko lehen hiru hilabetee-tan sartzeari edo 2023ko aurreproiektuan gauzatzeari.

Gai horien artean zegoen 2022an hartutako konpromiso bat, LORAFNan jasota egonda ere Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartu ez dituen eskumenen analisi bat egitea, bai eta egutegi-proposamen bat egitea ere, transferentziak Estatuarekin negoziatzeko. Nafarroako Gobernuak hori guztia 2023a baino lehen amaitzeko konpromisoa hartu zuen.

Nafarroako Gobernuak ba al du analisi hori egiteko asmorik eta transferentziak Estatuarekin legegintzaldia amaitu aitzin negoziatzeko egutegi-proposamena egiteko asmorik, hurrengo legegintzaldirako arlo horretako oinarriak ezarriko dituen bide-orri argi bat ezarrita?

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

10-23/POR-00073. Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer bide-orri daukan kalitatezko zerbitzu publikoak bermatu eta erreibindikazioei aurre egiteko.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer bide-orri daukan kalita-

teko zerbitzu publikoak bermatu eta erreibindikazioei aurre egiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak otsailaren 23ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako zerbitzu publikoetako langileek zenbait mobilizazio eta greba egin dituzte zerbitzu publikoak eta lan-baldintzak hobetzea erreibindikatzeko. Erreklamazioetako bat izan da plantillak egonkortzea/sendotzea, zeren eta egonkortzeari buruzko estatuko legearen bidez eta lege horrek Nafarroako Foru Komunitatean duen egokitzapenaren bidez ez baita lortuko behin-behinekotasuna ehuneko 8raino jaitea, eta

hori da, hain zuzen ere, arauaren helburu nagusia eta Europar Batasuneko erakundeen eskakizuna. Beste erreibindikazioetako bat izan da zerbitzu publikoak sendotzea –bereziki, O-NOZen asistentziaren arloan dauden arazoak–, lanpostu eta zerbitzu jakin batzuetan gertatzen den gehiegizko lana arinduta, eta orobat eskatu izan dute neurriak hartzea soldaten erosahalmenaren galera zuzentzeko, inflazio altuaren erruz balioa galdu baitute.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak zer bide-orri dauka erreibindikazio horiei aurre egiteko eta kalitatezko zerbitzu publikoak bermatzeko?

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

10-23/POR-00074. Galdera, legegintzaldi honetan lanbide arteko gutxieneko soldata 1080 eurora bitarte igo izanaren balorazioari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, legegintzaldi honetan lanbide arteko gutxieneko soldata 1080 eurora bitarte igo izanaren balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Nuria Medina Santos andreak, Legebiltzarreko Erregelamendua ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Espaniako Gobernuak ia ehuneko 40 igo du lanbide arteko gutxieneko soldata legegintzaldi honetan, 1080 eurokoa izateraino. Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du horri buruz?

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

10-23/POR-00075. Galdera, Klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legean aurreikusitako epeen betetze-maila egokitzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legean aurreikusitako epeen betetze-maila egokitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamariquek honako galdera hau aurkeztu dio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu dezan eta Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuaren ustez, Klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legean aurreikusitako epeen betetze-maila egokia eta asegarria al da?

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

10-23/POR-00076. Galdera, gazte-boluntariorantz lortutako gaitasunak aitortzeari buruzkoa.

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztutako galdera, Gazte-boluntariorantz lortutako gaitasunak aitortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, lehen lehendakariorde eta Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Boluntariorantz lan etengabea eta esker txarrekoa egin beharra dakar, baita arlo askotan ikastea ere; halatan, boluntarioak "informalki" hezten dira, eta batzuetan modu arautuan ere ikasten ahal diren gaitasunak lortzen dituzte. Hortaz, garrantzitsua da administrazioek boluntariorantz lortzen diren gaitasunen aitortza landu dezaten.

Nafarroako Gobernua nola ari da lantzen gazte-boluntariorantz lortutako gaitasunen aitortza?

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Mena Blascok,

10-23/POR-00077. Galdera, Nafarroan ibilgailu elektrikoen fabrikazioak duen etorkizunari buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzorriz Goñi jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan ibilgailu elektrikoen fabrikazioak duen etorkizunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzorriz Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak 2023ko otsailaren 23ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Nafarroan ibilgailu elektrikoen fabrikazioak duen etorkizunari buruz?

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Ramón Alzorriz Goñi

10-23/POR-00078. Galdera, Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko 2023-2027 urte anitzeko planari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko 2023-2027 urte anitzeko planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentariaren elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak otsailaren 23ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroari zertan eraginen dio onetsi berri den Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko 2023-2027 urte anitzeko planak?

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an.

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

10-23/POR-00079. Galdera, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren eta Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren 2023rako aurrekontuak murrizteari buruzkoa.

ANGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Angel Ansa Eche garay jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren eta Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren 2023rako aurrekontuak murrizteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Eche garay jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakari-tzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer dela-eta murriztu dituzue Nafarroako Gazteriaren Institutuaren eta Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren 2023rako aurrekontuak?

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Eche garay

10-23/POR-00080. Galdera, Osasungintzaren Barometroaren arabera herritarrek Nafarroako osasungintzari dagokionez duten iritziari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, Osasungintzaren Barometroaren arabera herritarrek Nafarroako osasungintzari dagokionez duten iritziari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuako lehendakariak zer balorazio egiten du Osasungintzaren Barometroaren arabera herritarrek Nafarroako osasungintzari dagokionez duten iritziari buruz?

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

10-23/POR-00081. Galdera, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen erregelamendua onetsi zuen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuaren 16. artikulua aldatzeari buruzkoa.

JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urtiaga jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen erregelamendua onetsi zuen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuaren 16. artikulua aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Jabi Arakama Urtiaga jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Iragan irailaren 27an, Nafarroako Parlamentuak aho batez onetsi zuen guraso bakarreko familien egoera aitatasun eta amatasun baimenei dagokienez hobetzeko mozio bat.

Halatan, mozioaren puntu batean Espainiako Gobernua premiatzen zen guraso bakarreko familiarretako gurasoentzako amatasun- eta aitatasun-baimenak 32 astera arte luza ditzan.

Beste puntu batean, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatu zuen alda dezan Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen Erregelamendua onesten duen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuaren 16. artikulua, halako moldez non baimena 17 astez luzatuko baita familia guraso bakarren kasuan.

Mozioa onetsi zenetik zenbait hilabete igaro direnez, Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariari galdetu nahi diogu ea zer urrats egin dituen –bere eskumeneren barruan betiere– Parlamentuaren bigarren eskaera hori betetzeko.

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urtiaga

10-23/POR-00082. Galdera, 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntza-eskaintza hobetzarren Hezkuntza Departamentuak egindakoari buruzkoa.

JORGE AGUIRRE OVIEDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkeztutako galdera, 0tik 3 urtera bitarteko ikastetxeetako tarifak hobetzarren Hezkuntza Departamentuak egindakoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Aguirre Oviedo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak zer egingen du Nafarroako Foru Komunitatean 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntza-eskaintza hobetzeko?

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Jorge Aguirre Oviedo

10-23/POR-00083. Galdera, euren errenta dela-eta familiak pairatzen ari diren erosahalmenaren galera moteltzarren Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa.

MARÍA JESÚS VALDEMOROS ERRO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkeztutako galdera, euren errenta dela-eta familiak pairatzen ari diren erosahalmenaren galera moteltzarren Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari María Jesús Valdemoros Erro andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak ahoz erantzun dezan Osoko Bilkuran:

Erosketa-saskia nabarmen garestitu izanak ahuldu egiten du Nafarroako familien erosahalmena, zeinak orobat pairatzen baitu zergen diru-bilketa igo izana (2022an, %20). Nafarroako Gobernuak zer neurri darabil gogoan familiak euren errenta dela-eta pairatzen ari diren galera moteltzeko?

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an.

Foru parlamentaria: María Jesús Valdemoros Erro

10-23/POR-00084. Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko dituen montepioen pentsioak direla-eta.

MARÍA INMACULADA JURÍO MACAYA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Inmaculada Jurío Macaya andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko dituen montepioen pentsioak direla-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Inma Jurio Macaya andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer egingen du montepioen pentsioak direla-eta?

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Inma Jurío Macaya

10-23/POR-00085. Galdera, zinemagintzarentzako zerga-pizgarriak handitze aldera Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkeztutako galdera, zinemagintzarentzako zerga-pizgarriak handitze aldera Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 14. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak neurririk hartuko al du, Arabako eta Bizkaiko aldundiek egin duten gisa, zinemagintzarentzako zerga-pizgarriak handitzeko eta, halatan, Nafarroak arlo horretan lehiakorra izaten jarrai dezan?

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an.

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

10-23/POR-00086. Galdera, kultur intereseko ondasunetara eta ondasun higiezin inbentariatuetara doako bisitak egiteari buruzkoa.

ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztutako galdera, kultur intereseko ondasunetara eta ondasun higiezin inbentariatuetara doako bisitak egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Kultura eta Kiroleko kontseilariak Legebiltzarreko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Egin duen azken agerraldian, Kultura eta Kiroleko kontseilariak adierazi zuen ia-ia amaituta dagoela Kultur Eskubideei buruzko Foru Legearen arau-garapena.

Lege horren 10. artikulua –Nafarroako Kultur Ondareko ondasunak– honako hau jasotzen du:

1. Pertsona orok du eskubidea Nafarroako Kultur Ondarea berdintasunez gozatzeko, ondasunen zainketa- eta babes-beharrizanak errespetatuz.

2. Edozein titulurengatik Nafarroako Kultur Ondareko ondasunen jabe edo edukitzaile diren pertsona edo entitateek betebeharrak dituzte:

a) Baimena ematea interes kulturalakotzat deklaraturako ondasunen eta ondasun higiezin inbentariatuen doako bisita publikorako, halako moduz non hilean lau egunez eta egunean lau orduz egin ahalko baita gutxienez ere, aurrez adierazitako egun eta orduetan. Interes kulturalen ondasun higigarriei dagokienez, zilegi izan da, edozein titulurengatik jabe edo kasuko eskubideen edukitzaile direnek hala eskatuta, arestian aipaturako betebeharrak horren ordean haiek gordailuan uztea, kultura arloko departamentu eskudunak haien erakusketa publikorako erabakitzen duen zentroan.

Hori horrela, honako galdera hau egin nahi diogu Kultura eta Kiroleko kontseilariari, ahoz erantzun dezan: noiz hasiko dira doako bisitak kultur intereseko ondasunetara eta higiezin inbentariatuetara legeak dioen moduan (hilean lau egunez eta egunean lau orduz gutxienez ere, aurrez adierazitako egun eta orduetan)?

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

10-23/POR-00087. Galdera, Volkswagenen hornitzaileen parkea mantentzeko bermeei eta Landabengo plantan enplegua mantentzeko trantsizio-plan negoziatuari buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, Volkswagenen hornitzaileen parkea mantentzeko bermeei eta Landabengo plantan enplegua mantentzeko trantsizio-plan negoziatuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak ahoz erantzun dezan:

Nafarroako lehendakariak zer berme lortu zuen Volkswagenen Alemaniako egoitzara egin berri duen bisitan egungo hornitzaileen parkea, zeinak 10.000 langile baititu, mantentzeari buruz? Zer trantsizio-plan negoziatu da Landabengo plantako enplegua mantentzeko?

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

10-23/POR-00088. Galdera, Etxebizitza babestuko sustapen geldiarazi edo atzeratuei buruzkoa.

JOSÉ LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, Etxebizitza babestuko sustapen geldiarazi edo atzeratuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Etxebizitza babestuko zenbat sustapen daude egun geldiarazi edo atzeratuta? Kasua bada, zer neurri hartu da horiek berriz abian jartzeko?

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

10-23/POR-00089. Galdera, Foruzaingoan jardunaldi, ordutegi eta ordainsarien erregelamenduaren zirriborroak dakarren langile-gastuen igoe-ra finantzatzeari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Foruzaingoan jardunaldi, ordutegi eta ordainsarien erregelamenduaren zirriborroak dakarren langile-gastuen igoe-ra finantzatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak nola finantzatuko du Foruzaingoan jardunaldi, ordutegi eta ordainsarien erregelamenduaren zirriborroak dakarren langile-gastuen igoe-ra?

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

10-23/POR-00090. Galdera, Nafarroako Gobernuak enplegatu publikoen erreibindikazioei emandako erantzunari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuak enplegatu publikoen erreibindikazioei emandako erantzunariburuzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, gaurkotasuneko honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaión.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako administrazio publikoetako sektore jakin batzuetako langileen ordezkariekin ari da negoziatzen egunotan (foruzainak, suhiltzaileak eta medikuen sindikatua).

Iragan asteazkenean, lan-baldintzak hobetzea eta zerbitzu publikoak kalitate handiagokoak izatea eskatzeko LAB, CCOO, ELA eta STEILAS sindikatuek deitutako greban eta manifestazioan parte hartu zuten Nafarroako administrazio publikoetako departamentu guztietako milaka langilek.

Nafarroako Gobernuak presako zer negoziazio eta jarduketa prozesu darabil gogoan kolektibo handi horren erreibindikazio justuei erantzuteko eta zerbitzu publikoak hobetzeko?

Iruñean, 2023ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

10-23/POR-00091. Galdera, Ministroen Kontseiluak onetsi zuen Familiei buruzko Legearen aurreproiektuan jasotako hazkuntza-prestazioa Nafarroan egokitzeari buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Ministroen Kontseiluak onetsi zuen Familiei buruzko Legearen aurreproiektuan jasotako hazkuntza-prestazioa Nafarroan egokitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak 2023ko otsailaren 23ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ministroen Kontseiluak 2022ko abenduaren 13an onetsi zuen familiei buruzko aurreproiektua. Nafarroako Gobernuak nola egokituko du aurreproiektu horretan jasotzen den hazkuntza-prestazioa?

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

10-23/POR-00092. Galdera, gure erkidegoan enpresa-proiektu berriak garatzeko aurreikusten diren inbertsioei buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, gure erkidegoan enpresa-proiektu berriak garatzeko aurreikusten diren inbertsioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2023ko otsailaren 23ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Nafarroako Gobernuak zer balantze egiten du gure erkidegoan enpresa-proiektu berriak garatzeko aurreikusten diren inbertsioei buruz?

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

10-23/POR-00093. Galdera, EH Bilduk Nafarroako Gobernuari emandako babesari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, EH Bilduk Nafarroako Gobernuari emandako babesari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurreak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lehendakariak ere uste al du, Arnaldo Otegia bezala, EH Bilduk Nafarroako Gobernuari emandako babesa "oso positiboa" dela?

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea